Aldizkaria *Revista* n. 16

HISTORIA ETA INGURUMENA EZAGUTZEKO ZENTROA

CENTRO DE INTERPRETACIÓN HISTÓRICA Y MEDIOAMBIENTAL

Sarrera
Introducción

Ugao-Miraballesko Historia eta Ingurumen Interpretazio Zentroa jendearentzat zabalik dagoen instalazioa da, Jane jauregiko beheko solairuan dagoena. HIEZ-an Ugao-Miraballesko historiari, ondareari eta ingurumenari buruzko informazioa eskaintzen da.

HIEZ Ugao-Miraballes eta bere ingurunea hobeto ezagutzeko jakin-mina duten herritarrei zuzenduta dago. Horretarako, hainbat zerbitzu eta jarduera eskaintzen dira taldeentzat, eta zentroarekin harremanetan jarrita zehaztu daitezke.

Hemen duzue 2022an egindako ekintzen laburpena, eta laster egingo diren ekintzetara gonbidatzen zaituztegu.

El Centro de Interpretación Histórica y Medioambiental de Ugao-Miraballes es una instalación abierta al público en general que se encuentra ubicada en la planta baja del Palacio Jane. En el CIHMA se ofrece información sobre la historia, el patrimonio y el medio ambiente de Ugao-Miraballes.

El CIHMA está dirigido a la población en general que sienta curiosidad por conocer mejor Ugao-Miraballes y su entorno. Para ello se ofrecen diferentes servicios y actividades para grupos que se pueden concretar contactando con el centro.

Aquí os dejamos un resumen de las acciones llevadas a cabo en 2022 y os invitamos a las que próximamente se llevarán a cabo.

INFORMAZIO GUNEA
Zatoz eta informa zaitez hiribilduaren historiarekin, kultur agendarekin, mendi- zein turismo-ibilbideekin eta abarrekin zerikusia duten gaiei buruz.

PUNTO DE INFORMACIÓN
Ven e infórmate sobre aspectos relacionados con la Historia de la villa, la agenda cultural, rutas turísticas y montañeras...

UGAO-MIRABALLESKO LAGUNAK TALDEA
Ugao-Miraballesko ingurumenean eta historian interes berezia duten pertsona guztiak batzeko asmoa duen taldea.

GRUPO UGAO-MIRABALLESKO LAGUNAK
Grupo que pretende unir a aquellas personas que tengan un interés especial en la Historia y medio Ambiente de Ugao-Miraballes.

BISITALDI GIDATUAK
Talde-mota desberdinentzako bisitaldiak gidarekin. DOAN

VISITAS GUIADAS
Visitas con guía para toda clase de grupos. GRATUITAS

ESKOLA-PROGRAMA
HIEZk hezkuntza-programa bat eskaintzen die eskualdeko ikastetxeei, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzako bisitaldi bereziekin.

PROGRAMA ESCOLAR
El CIHMA ofrece a los centros escolares de la comarca un Programa educativo con visitas especiales para el alumnado de Educación Infantil y Primaria.

DOKUMENTAZIO-ZENTROA
Aztertzeko eta ikusgai jartzeko helburuarekin doaneko lagapenean jasotako antzinako agirien, tresnen eta argazkien artxibategia.

CENTRO DE DOCUMENTACIÓN
Archivo de fotografías, utensilios y documentos antiguos cedidos desinteresadamente por personas para su estudio y exposición.

MATERIALAK ARGITARATZEA
Eska itzazu doan zentroak udalerria hobeto ezagutzeko asmoz argitaratutako materiala: ibilbideak, panelak, baliabideen gida, etab.

EDICIÓN DE MATERIALES
Solicita gratuitamente los materiales que ha editado el centro para conocer mejor el municipio: itinerarios, paneles, guía de recursos, etc.

JARDUERA IREKIAK
Urtero hiribilduaren ondare historiko-naturalarekin lotura duten ekitaldiak eta jardunaldiak antolatzen dira.

ACTIVIDADES ABIERTAS
Anualmente se organizan eventos y jornadas relacionadas con el patrimonio histórico-natural de la villa.

Martxoaren 4ko ospakizuna
Celebración del 4 de marzo

AURREZ AURRE ETA BIRTUALKI BERRIZ ELKARTZEA

Hiribildua sortu zeneko 647. urteurrena ospatzeko helburuarekin Ugao Miraballesko Udalak, Kultura Sailaren bitartez eta Historia eta Ingurumena Ezagutzeko Zentroarekin elkarlanean, adin guztiei zuzendutako egitarau anitza antolatu zuen, martxoak 4an eta 5ean.

Hasteko, martxoaren 4an, "Ezagutu Ugao zure kontura" turismo proiektu berriaren aurkezpenaz gozatzeko aukera izan zen. Bisita gidatu animatua egin zen, On Juan Bizkaiko Jauna pertsonaiaren ordainezinezko laguntzarekin, aurretik

REENCUENTRO PRESENCIAL Y VIRTUAL

Con el fin de conmemorar el 647 aniversario de la fundación de la villa, el Ayuntamiento de Ugao Miraballes, a través del Departamento de Cultura y en colaboración con el Centro de Interpretación Histórico y Medioambiental, se organizó un programa variado dirigido a todas las edades, que tuvo lugar los días 4 y 5 de marzo.

Para dar el pistoletazo de salida, el 4 de marzo, se pudo disfrutar de la presentación del nuevo proyecto turístico "Conoce Ugao por tu cuenta". Se realizó una visita guiada animada, con la ayuda impagable del personaje de Don Juan de Bizkaia, permitiendo visualizar vídeos

Urteurrenari amaiera ezinhobea emateko, Institutoko kirol pistan Berdinki euskal zirku konpainiaren "Mikra" ikuskizuna garatu zen.

Como broche final al aniversario, en la pista deportiva del Instituto se desarrolló el espectáculo "Mikra" de la compañía de circo vasco Berdinki.

ezarritako geldialdi desberdinetan QR kodigoen bitartez gure proiektuko bideoak ikusteko aukera emanez.

Hurrengo egunean, ohikoak diren lehiaketa gastronomikoak ospatu ziren, 2021an bezala, modu birtualean badaezpada. Beraz, ugaotarrek umeentzako postre lehiaketan zein indaba lehiaketan parte hartzeko aukera izan zuten gure Facebook-aren bidez.

"Ugaoko sekretua" izan zen egun bereko goizean antolatutako scape room-aren gaia. 1920 urteaz geroztik, On Florencio Ugao-Miraballes nazio eskoletako irakasle maitatu eta iraultzailea da. Hiribilduaren leku esanguratsuetan ibiltzeko jolasa, eta XX. mendeko hezkuntzaren eta tokiko historiaren bidai misteriotsu honetan, aktore batek gidatutako ihes-joko txikia antolatu zen.

Eta urteurrenari amaiera ezinhobea emateko, Institutoko kirol pistan Berdinki euskal zirku konpainiaren "Mikra" ikuskizuna garatu zen. Publiko guztiei zuzendua, emanaldiak berdinatsunaren inguruan akrobazien bidez ikusleei pentsaraztea zuen helburu, imajinario berri bat garatzea bilatuz.

de nuestro proyecto a través de códigos QR en las diferentes paradas preestablecidas.

Al día siguiente se celebraron los habituales concursos gastronómicos, como en 2021, por si acaso de forma virtual. Así que los ugaotarras tuvieron la oportunidad de participar tanto en el concurso de postres para niños como en el de alubias a través de nuestro Facebook.

"El secreto de Ugao" fue el tema del scape room organizado para la mañana del mismo día. Desde 1920, don Florencio es un estimado y revolucionario profesor de las escuelas nacionales de Ugao-Miraballes. Se organizó un juego para recorrer lugares emblemáticos de la villa y un pequeño juego de escape guiado por un actor en este misterioso viaje a través de la educación y de la historia local del siglo XX.

Y como broche final al aniversario, en la pista deportiva del Instituto se desarrolló el espectáculo "Mikra" de la compañía de circo vasco Berdinki. Dirigido a todos los públicos, la función tenía como objetivo hacer reflexionar al público a través de acrobacias en torno a lo igualitario, buscando el desarrollo de un nuevo imaginario.

Aste berdea Ugaon
Semana verde en Ugao

ADIN GUZTIAK KONTZIENTZIATUZ

Aurten ere, Ugao-Miraballesko Udalak, ingurumen arloaren bitartez eta HIEZArekin elkarlanean, aste berdea ospatzeko egitarau zabala antolatu zuen. Adin guztiei zuzendutako ekitaldiak maiatzaren 2tik 8ra bitartean egin ziren eta erabat doakoak izan ziren:

- Ludotekan eta Mirabatxo Klubean birziklatutako materialekin tailerrak egin ziren.
- Traka-Matraka tailer eta ikuskizun familiarra antolatu zen, birziklatutako materialekin egindako musika-tresnekin.
- Familientzako ohiko txangoa berreskuratu genuen, kasu honetan Urkiolako Parke Naturalera: bisita, ginkana inguruetan, ibilaldi erraza eta bazkaltzeko etenaldi bat egin genuen, itzuli aurretik.
- Eta amaitzeko, zuhaitzaren eguna ospatu genuen, zuhaitzen mozketa bereizi gabea murriztearen garrantziaz kontzientziatu nahian, eta argi utzi nahi genuen basoak birpopulatzeko modu bakarra berriak landatzea dela, eta, beraz, udalerriko espazio libre bat aprobetxatu genuen zuhaitz pare bat landatzeko tailer hezitzaile baten ondoren.

CONCIENCIANDO A TODAS LAS EDADES

Un año más, el Ayuntamiento de Ugao-Miraballes, a través del área de medioambiente y en colaboración con el CIHMA organizó un programa repleto de actividades para celebrar la semana verde. Los actos, dirigidos a todas las edades, se desarrollaron del 2 al 8 de mayo y fueron totalmente gratuitos.

- Tanto en la Ludoteka como en el Club Mirabatxo hubo talleres con materiales reciclados.
- Tuvimos a Traka-Matraka, taller y espectáculo familiar con instrumentos musicales hechos con materiales reciclados.
- Recuperamos la tradicional excursión familiar, en este caso al Parque Natural de Urkiola: incluyendo visita, ginkana por los alrededores, ruta senderista sencilla y una pausa para comer antes de volver.
- Y ya para concluir, celebramos el día del árbol para concienciar sobre la importancia de reducir la tala indiscriminada de árboles y dejar bien claro el mensaje de que la única manera de repoblar los bosques es plantando nuevos, por lo que aprovechamos un espacio libre del municipio para plantar un par de árboles previamente a un taller educativo.

Burdin Hesia Ugaon, XI. Aste Historikoa
XI Semana Histórica del Cinturón de Hierro en Ugao

KONTZENTRAZIO-ESPARRU FRANKISTAK ETA BIRSORTZE HISTORIKOA

Ugao-Miraballesko XI. Aste Historikoak oso gutxitan jorratzen den gai bati heldu zion aurten, kontzentrazio-esparru frankisteei, hain zuzen ere. Burdin Hesia elkarteak antolatu zuen, eta hitzaldiak Jane Jauregian egin ziren.

Eta gure harri-koskor txikia jarriz, Historia Ezagutzeko Zentrora bisita gidatua antolatu genuen, "lubaki biziaren" ostean jardunaldiak amaitzeko.

CAMPOS DE CONCENTRACIÓN FRANQUISTAS Y RECREACIÓN HISTÓRICA

La XI Semana Histórica de Ugao-Miraballes se centró este año en un tema que rara vez se aborda, como son los campos de concentración franquistas. Estuvo organizado por la asociación local Cinturón de Hierro celebrándose las conferencias en el Palacio Jane.

Y nuestro pequeño granito de arena consistió en realizar una visita guiada al Centro de Interpretación Histórica para finalizar las jornadas tras la "trinchera viviente".

HITZALDIAK / CONFERENCIAS

300 kontzentrazio-esparru frankistak / Los 300 campos de concentración franquistas
Carlos Hernández, kazetaria / periodista.

Felix Urrutikoetxea Intxaurragari eta Simón Aguirre Sierrari omenaldia Ugaoko plazan eta hitzaldia: Urduñako kontzentrazio-esparruaren ikerketa berriak / Homenaje a Félix Urrutikoetxea Intxaurragari y Simón Aguirre Sierra y demás vecinos y vecinas víctimas de la Guerra Civil, en la plaza de Ugao y conferencia: Nuevas investigaciones del campo de concentración de Orduña
Joseba Egiguren, kazetaria / periodista.

Haroko kontzentrazio-esparrua / El campo de concentración de Haro
Tomás Llanos, historialaria / historiador.

Espainiako kontzentrazio-esparrurik handiena. Miranda de Ebro / El mayor campo de concentración de España. Miranda de Ebro
Fernando Cardero, historialaria / historiador.

Ugaoko Burdin Gerrikora bisita gidatua "Lubaki bizi" batekin / Visita guiada al Cinturón de Hierro de Ugao con "trinchera viviente"

Eta zazpi urte ondoren… Berriz ere Ugaoko Erdi Aroko Azoka!

Y después de siete años… ¡De nuevo el Mercado Medieval de Ugao!



Ugao-Miraballesen 2022ko programazioko ekitaldi garrantzitsuenetako bat bizi genuen Ekainaren 11n eta 12an: Erdi Aroko azokaren edizio berri bat gure kaleetan. Azoka hau bost urtean behin egin ohi da, baina 2020ean ezin izan zen hiri prestuaren 645. urteurrena ospatu, 2021ean pandemiaren murrizketak oraindik indarrean zeuden neurrian.

En Ugao-Miraballes vivimos uno de los eventos estrella de la programación de 2022 lo días 11 y 12 de junio: una nueva edición de nuestro mercado medieval. Esta feria se suele celebrar cada cinco años, pero en 2020 no se pudo conmemorar el 645 aniversario de la villa por las restricciones derivadas de una pandemia que también impidió su celebración en 2021.

Con la recuperación de la cita, adentrarse estos días por el municipio supuso la sensación de retroceder hasta el siglo XIV, hasta la época en la que se fundó la villa, y sumergirse en el ambiente, aroma y el colorido del medievo gracias a la recreación de un mercado de antaño.

El mercado estuvo compuesto por una treintena de puestos de lo más variados. Artesanía, cetrería, alimentación, exposiciones y talleres mez-

Jaia berreskuratzearekin bat, egun horietan hiri prestu barnetik mugitzeak denboran zazpi mende atzera egin, hiri prestua jaio zen garaira, eta Erdi Aroko giro, usain eta kolore-aberastasunean murgiltzeko sentsazioa ekarri zuen, antzinako azoka baten birsortzeak eraginda.

Merkatuan askotariko 30 postu baino gehiagok osatu zuten. Artisautza, falkoneria, elikadura, erakusketak eta tailerrak haurrentzako txokoarekin, atrakzioekin eta adingabeentzako jolasekin nahastu ziren... hori guztia hainbat musika eta antzerki konpainiek animatuta.

Jardueren artean Goraldia nabarmendu zen, piroteknia eta video-mapping ikuskizun indartsua, forma, neurri eta kolore desberdinetako argien eta efektu pirotekniko hautatuen konbinazio erakargarri batean zetzana. Larunbatean, hilak 11, izan zen, 22:30etan, eta udaletxeko fatxadan proiektatu zen.

Ostalaritza “Pintxoaren Ibilbidea”rekin batu zen ospakizunetara. Eta elkartutako dendek beren saltokietan kontsumitu beharreko bonoak zozketatu zituzten, merkatuko postuetan erosketa bidez banatu ziren txartelen bidez.

clados con un rincón infantil, atracciones y juegos para menores… Y todo ello animado por diferentes compañías de música y teatro.

Entre las actividades destacó Goraldia, un potente espectáculo de pirotecnia y videomapping, que consistió en una atractiva combinación de luces de diferentes formas, tamaños y colores con escogidos efectos pirotécnicos. Tuvo lugar el sábado 11 a las 22:30 horas y se proyectó sobre la fachada del Ayuntamiento.

La hostelería se sumó a los festejos con una ‘Ruta del Pintxo’. Y los comercios asociados sortearon bonos a consumir en sus establecimientos a través de los boletos que se repartieron por la compra en los puestos del mercado.

Ondarearen Europako Jardunaldiak
Jornadas Europeas del Patrimonio

GARAPEN IRAUNKORRA ETA DENBORA BIDAIARI BAT

Asko ikasi genuen Ockam Irakaslearekin; Historialari eta Zientzialari hau 3022. urtetik etorri da. Berak badaki aurtengo jardueran parte hartu zuen ume batek Nobel Saria irabaziko duela eta oso garrantzitsuak direla denbora-kapsulan sartu genituen hausnarketa horiek. Agenda 2030ri buruzkoak ziren, baina zoritxarrez, etorkizunean norbaiti ahaztu egin zitzaion denbora-kapsula zabaltzea... eta testu horiek ezin izan ziren irakurri eta betirako desagertu dira! Beraz, gure garaira etorri zen jarduera errepikatzera eta 2030. urtean kapsula ireki behar dugula gogoraraztera; dagoeneko gure museoan dago... beraz, zortzi urte barru zabalduko dugu!

DESARROLLO SOSTENIBLE Y UN VIAJERO DEL TIEMPO

Aprendimos un montón con el Profesor Ockam que es Historiador y Científico y viene del año 3022. Él sabe que un niño o niña que participó en la actividad de este año ganará el Premio Nobel y que las reflexiones que introdujimos en la cápsula del tiempo son importantísimas. Eran acerca de la Agenda 2030, pero desgraciadamente a alguien en el futuro se le olvidó abrir la cápsula del tiempo... ¡y esos textos no se pudieron leer y han desaparecido para siempre! ¡Así que vino a nuestro tiempo para repetir la actividad y recordarnos que tenemos que abrir la cápsula en el año 2030; ya está en nuestro museo... por lo que ahora sí que la abriremos dentro de ocho años!

Ugao-Miraballesko XVII. Mikologia Jardunaldiak
XVII Jornadas Micológicas de Ugao-Miraballes

MIKOLOGIAREKIKO INTERESAK GORA EGITEN JARRAITZEN DU

Ugao-Miraballesko Mikologia Jardunaldien hamazazpigarren edizioan mendi-irteera egin zen, espezie desberdinak biltzeko. Ondoren, espezieak sailkatu, 238 espezieren erakusketa egin, eta gure jardunaldietarako beren-beregi prestatutako Elssie Xalbadorren “Menditik zehar” ipuin kontaketaz gozatzeko aukera izan genuen.

Halaber, azken edizioetan bezala, larunbatean eta igandean zehar Pintxo Mikologikoaren ibilbidea egin ahal izan zuten "ahogozagarri" honen zaleek ostalaritzako sei lokaletan.

Azaroan gertatu ziren arren, hurrengoak noiz iritsiko irrikan gaude!

EL INTERÉS POR LA MICOLOGÍA CONTINÚA CRECIENDO

Las Jornadas Micológicas de Ugao-Miraballes contaron en su decimoséptima edición con la tradicional salida al monte para recolectar especies, con su correspendiente y ardua clasificación y la exposición de 238 especies y el cuentacuentos “A través del monte” de Elssie Xalbador preparado a medida para nuestras jornadas.

También, como en últimas ediciones, durante el sábado y el domingo los y las amantes de este “manjar” pudieron realizar la Ruta del Pintxo Micológico en seis diferentes locales de hostelería.

¡Aunque han tenido lugar en noviembre, ya estamos deseando que lleguen las siguientes!

II. Argazki Lehiaketa
II Concurso Fotográfico

TXOKO TXUNDIGARRI BAT

Eta ekainean, berriz ere, Ugao-Miraballesko Argazki Lehiaketa egin zen. Maitane Heppe izan zen irabazlea eta bigarren saria Josue Romeroren argazkiarentzat izan zen.

UN RINCÓN SORPRENDENTE

Y, de nuevo, en junio tuvo lugar el Concurso de Fotografía de Ugao-Miraballes. La ganadora fue Maitane Heppe y el segundo lugar fue para la fotografía de Josué Romero.

1. saria / 1.er premio

Maitane Heppe

Udaberriaren Etorrera: San Joseren loreek udaberriaren etorrera iragartzen dute. Kasu honetan, burdinezko iturria inguratzen agertu ziren.

La Llegada de la primavera: las flores de San José anuncian la llegada de la primavera. En este caso aparecieron rodeando la fuente de hierro.

2. saria / 2° premio

Josue Romero

Gotorlekua defendatzen: Usilako zubia bezala ezagutzen da, Burdinezko Gerrikoaren defentsa.

Defendiendo el Fortín: conocido como el puente de Usila, defensa perteneciente al cinturón de Hierro.

Eskola Programa
Programa Escolar

UGAOKO HISTORIA GURE MUSEAOREN BIDEZ EZAGUTZEA

HIEZren helburuetako bat gure ondarea publiko guztiei erakustea da, bereziki haurrei eta gazteei ezagutza hori erraztuz. Gure historia bertatik bertara ezagutzeko aukera ematen dieten eskolako bisiten, haurrentzako tailerren eta beste hainbat jardueraren bidez egiten dugu.

Hainbat unitate didaktiko ditugu ikasturtearen arabera, eta, gainera, gure bisitetan dibertimendua bermatzen dugu, guztiak antzeztuak baitira.

Beraz, badakizu, animatu zure seme-alaben irakasleak doan izena eman eta bisita gaitzaten.

CONOCER LA HISTORIA DE UGAO A TRAVÉS DE NUESTRO MUSEO

Uno de los objetivos que tiene este CIHMA es la de mostrar nuestro patrimonio a todos los públicos, con especial énfasis en facilitar ese conocimiento a los niños, niñas y jóvenes. Lo hacemos a través de visitas escolares, talleres infantiles y diversas actividades, que les dan la oportunidad de conocer de primera mano nuestra historia.

Contamos con diversas unidades didácticas segun el curso escolar y además garantizamos la diversión en nuestras visitas, pues todas ellas son teatralizadas.

Asi que, ya sabes, anima al profesorado de tus hijos e hijas a que se inscriban de forma gratuita y nos visiten.

Bisita gidatuak Ugao-Miraballesera

Visitas guiadas a Ugao-Miraballes

BAKARRIK EDO TALDEAN, EZAGUTU UGAO-MIRABALLES ZUK NAHI DUZUN BEZALA!

Zentro honek mota askotako taldeentzako bisita gidatuak eskaintzen ditu. Normalean, bisita erakusketa iraunkorrean hasten da, hiribilduaren bilakaera historikoa ezagutzeko; eta, ondoren, hiri-ibilbide bat egiten da, izandako aldaketak eta tokiko ondarea bertatik bertara ikusteko.

Berritasun gisa, aurten bideo labur batzuk sortu ditugu euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez, Ugaoren lekurik nabarmenenak azaltzeko. Zuen mugikorrean ikus ditzakezue, puntu horietan jarri ditugun QR kodedun plakak eta itsagarriak eskaneatuta. Lehen aipatu dugun bezala, "Ezagutu Ugao zure Kontura" izeneko ibilbidearen parte dira. Hiribilduaren urteurrenaren ondoren buzoneatu genituen mapa batzuetan islatu zen ibilbide hori. Nahi duenak, mapa horiek bisitariari arreta emateko ordutegian ere eskuratu ditzake.

Zuen zain gaude!

SOLO, SOLA O EN GRUPO
¡CONOCE UGAO-MIRABALLES CÓMO TÚ QUIERAS!

Este Centro oferta visitas guiadas a grupos de diversa índole. Normalmente la visita comienza en la exposición permanente para conocer la evolución histórica de la villa y seguido se realiza un itinerario urbano para ver in situ el cambio y el patrimonio local.

Como novedad, este año hemos creado unos vídeos breves en euskera, castellano e inglés para explicar los lugares más destacados de Ugao, que podréis ver en vuestro móvil escaneando las placas y los adhesivos con códigos QR que hemos puesto en dichos puntos. Como hemos mencionado anteriormente, forman parte de la ruta denominada "Conoce Ugao por tu Cuenta" que quedó plasmada en unos mapas que buzoneamos posteriormente al aniversario de la villa y que también se pueden recoger en el horario de atención al visitante.

¡Os esperamos!

JENDEAURREKO ORDUTEGIA:

Asteartetik ostegunera: 9:30tik 15:00ra

Bisita gidatuak:

Adostu behar dira (aldez aurretik)

946480704

ugao-miraballes-museo@ortzadar.es

HORARIO ATENCIÓN AL PÚBLICO:

Martes a jueves de 9:30 a 15:00 horas

Visitas guiadas:

Horario a convenir (previa reserva)

946480704

ugao-miraballes-museo@ortzadar.es

Jane Jauregia

Udiarraga kalea, 38

48490 Ugao-Miraballes (Bizkaia)

Palacio Jane

C/ Udiarraga, 38

48490 Ugao-Miraballes (Bizkaia)

https://kulturaugao.wixsite.com/website-3

www.facebook.com/UgaoMiraballeskoHistoriaEzagutzekoZentroa

2023KO HURRENGO JARDUERAK	PRÓXIMAS ACTIVIDADES DE 2023
EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA Martxoak 8	**DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES** 8 de marzo
EUSKAL ASTEA Martxoaren 26tik apirilaren 2ra	**EUSKAL ASTEA** Del 26 de marzo al 2 de abril
ARTISAU GARAGARDO DASTAKETA Martxoak 17	**CATA DE CERVEZA ARTESANA** 17 de marzo
II. SUKALDARITZA ETA GASTRONOMIA JARDUNALDIA Apirilean	**II CERTAMEN DE COCINA Y GASTRONOMÍA** En abril
ASTE BERDEA Maiatzaren 2tik 7ra	**ASTE BERDEA** Del 2 al 7 de mayo
HERRI KROSA Maiatzak 14	**HERRI KROSA** 14 de mayo